

IBARRAKO UDALAREN ETA BIDE TXUR MENDI KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarrako udaletxean, 2023ko ekainaren 28an.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor ZapiRAIN Lizarribar, Ibarrako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarrako Udaleko Idazkari Eider Esnaola Carrerak lagunduta.

Eta bestetik, Iker Aranalde Ijurco jauna, 72457535Z NAN zenbakiduna, Bidetxur Mendi Klubeko lege ordezkaria. Elkartearen egoitza soziala: Ibarrako Arantzazuko Ama, 4 behean, IFK: G67787770.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Bidetxur Mendi Klubaren izenean eta ordezkaritzan, lehendakari gisa, 2021eko maiatzaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariak bere ebazpenean jasotakoaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- BIDE TXUR MENDI KLUBAK 2023ko urtarrilaren 16an Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez —sarrera erregistro zenbakia 198 —, dirulaguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek 4.600 euroko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

1. Orientazio proba
2. Mendi duatloia
3. Mendi martxa
4. Ekintza gehigarriak: hitzaldiak, bizikleta festa, mendi irteerak...

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarako Udalaren 2023ko udal aurrekontuan, 1 10.341.05.481.01 2023 partida agertzen dela, 2.500 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: “Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1.19) artikuluan, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen du: **Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea**. Eskumen hau Udalaren berezko eskumenen artean dago eta Bidetxur Mendi Klubak Ibarako herrian kirola, eta bereziki, mendia sustatzea ditu bere helburu nagusien artean.

Era berean, martxoaren 30eko Euskadiko Jarduera Fisiko eta Kirolaren 2/2023 Legearen 2. artikulua printzipio gidariak zehazten ditu, eta horien artean zehazten du, **aginte publikoek**, beren eskumen esparruaren barruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dutela, besteak beste, **kirol-asoziazionismoa antolatzeko eta sustatzeko, eta kiroleko erakunde-egitura pribatuak aitortzeko eta babesteko**.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

VIII.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarako udalak 2020ko otsailaren 18an onartutako Ibarako Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO, 38.zbk), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

IX.-298/2019 Alkate Dekretuari jarriki, dirulaguntza hau eta berori arautuko duen hitzarmena kudeatzeko organo eskuduna Alkatea izango da. Zuriketari dagokionean ere, Alkate dekretu bidez ebatziko da.

X.- Hori dela eta, 2023ko ekainaren 28eko data duen 395/2023 Alkate Dekretu bidez, Bidetxur Mendi Klubari 2.500 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena sinatzea erabaki zuela.

XII.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta BIDE TXUR MENDI KLUBa elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerriaren barruan honako arrazoiengatik:

- Herrian dagoen mendi klub bakarra delako.
- Klubak bilatzen duelako ibartar bazkide eta federatu bazkide kopurua handitzea bilatzen duelako.
- Kirol mota honetan progresio bat egiteko aukera ematen dielako herriko kirolariei, txikitan hasi eta heldu izan artean bertan kirola eta jarduera fisikoa egin dezaketelako.
- Herritarren artean zaletasuna sustatzen duelako.
- Ibarri ospea eta izen ona ematen diolako.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

1. Orientazio proba
2. Mendi duatloia
3. Mendi martxa
4. Ekintza gehigarriak: hitzaldiak, bizikleta festa, mendi irteerak...

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarra Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2023ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **2.500 euro**koak izango dira, 10.341.05.481.00 2023 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarra udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina

kalkulatuko da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntzek erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

- b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-intereseekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31era arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kirol departamentuari, Ibarako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak III. Kapituluaren xedatutakoaren arabera

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarako Udalaren Ordenantza Orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean

edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarako Udalaren IIII kapituluan dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 31ean amaituko da.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren %70a izango da, eta gainontzeko %30a, egindako gastua justifikatzen duen kontua Alkate dekretu bidez onartutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzeari, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.- Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamalagarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako

egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemezortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplika daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarra Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.


Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA

BIDETXUR MENDI KLUBA

Igor Zapirain Lizarribar

Iker Aranalde Ijurco



1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO	€
- Ibarrako udala - Gainontzekoak	

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	
Pertsonal kontratuak denera	
Asistentziagatiko ordainagiriak denera	
Fakturak denera	
Tiketak erosketak (20 eurotik beherakoak) denera	
Beste administrazioetako erreziboak denera	
Tiketa, elkartearen lokalen erabilerarena	
Kilometrajea denera	
Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	



Justifikatutako gastuak zehaztuta

[illegible]

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

--

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioeko errezeptiboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezeptibo eta Tikeketan, horiek burutzen dituenak, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagiritan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.
5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objektua
7. BEZ-a: Faktura eta Tikeketan kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturretan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzaileak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketak

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau
Adierazten dut:
Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolana ere, prest nagoela Ibarako Udalaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

XXXXXXXXXXXXX

Izena Abizenak.....XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX.....

Lekua eta data:n, 2020korenan

LEGE-OHARRA
Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarako Udala da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Kultura Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal Herria kalea 44, 20400-Ibarra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

5

Ordainketak bideratzeko datuak

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO	
A	HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO
(1) NAN/IFE DNI/NIF (2) Izena eta bi abizenak / Societatearen izena Nombre y dos apellidos / Razón Social Helbidea Domicilio..... Posta kodea Herria Código postal..... Población Herrialdea País.....	
B	BANKUAREN DATUAK DATOS BANCARIOS
(1) Bankua Banco (2) Agentzia Agencia (3) KD K/kontonbete DC C/Corrente (4) Jabea Titular OHARRA: Kontu kontonbeteen jabeak dardien hirugarrena bere belfar da bain. NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.	
C	Bankuaren adostasuna Conforme banco
D	Hirugarrenaren adostasuna Conforme tercero
E	Sello edo Enlaketaren onepena Vº Bº Opto. u Organismo
_____ Sturadura eta sigilua Sello y firma	
_____ Sturadura eta sigilua Sello y firma	
_____ Sturaduratzeko sturadura eta sigilua Sello y firma autorizada	

DATA / FEEDBACK

3.-ERANSKINA

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDUA. KIROL EKIMENAK

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
--------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura

ERANSKINA 4

ASISTENTZIAGATIKO ORDAINAGIRI EREDU OROKORRA EKIMENAK

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KOPURU GORDINA	% 15 PFEZ	JASOTAKOA ZUZENEAN

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
---------------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura

ERANSKINA 5

GARRAIO GASTUEN JUSTIFIKAZIO EREDUA

ELKARTEA:		IFZ:	
-----------	--	------	--

IZENA:		NAN:	
--------	--	------	--

DATA	JARDUERA	TOKIA	KM	KM 0,19 €	KOPURUA
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	
				X 0,19 €	

DATA	JARDUERA	TOKIA	PEAJEA/ PARKINA	KOPURUA

DENERA HILEKO / KURTSOKO	
---------------------------------	--

Elkartearen sinadura

Jasotzailearen sinadura